

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko IRAILA · 347 zenbakia

Ane Garrido, urrezko heptatleta



Usa

Elektrizitatea

**Argia dakargu
zure etxera!**

**Instalazioak
Konponketak
Inspeizioak**

624 005 827 

ERMUA



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutense
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatueta:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Gaia: Erronda-kantua

En Ermua hay tres calles

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogetenitturri.eus

En Ermua hay tres calles
que no las hay en Madrid,
en Ermua hay tres calles
que no las hay en Madrid:
Artekale, Barrenkale
y el barrio de Patakonia;
Artekale, Barrenkale
y el barrio de Patakonia.



**Euskal
Birusa
Elkarteak**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogetenitturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ane Garrido.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López, Valentín Mugarza
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Eneritz Aranburu, Óscar Blanco,
Ane Garrido, Estibalitz González,
Sara Iglesias, Almu Maeso, Valentín
Mugarza, Sallabente Auzoko Elkarteak
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Eneritz Aranburu
eta Unai Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Sara Iglesias · Panama

“Karibea eta Pazifikoa distantzia berdiner daude, eta hondartza desberdinetara joan ohi naiz”

2017an BEINT programan parte hartzen hasi zen Sara Iglesias ermuarra, eta programaren azken zatia Panaman burutu zuen. 2019ko urtarrilean heldu zen bertara, bikotekidea ezagutu, eta geratzea erabaki zuen. Sei urte daramatza bertan bizitzen.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Zertan egiten duzu lan Panaman?

Urtean behin egiten den Tribal Gathering Panama festibalaren ekoizlea naiz, eta jaialdia burutzeko behar den guztia lortzeaz eta kudeatzeaz arduratzen naiz. Festibal honetan munduko tribu desberdinak batzen dira, 16 egun irauten duen topaketan, eta bertan bakoitzak bere jakinduria partekatzen du besteekin. Tribuetatik aparte, beste hiru eszenatoki eraikitzen ditugu, munduko musika eta *psytrance* musika nahasten dituztenak. Baina festibalean gehien gogoko dudana, seguruenik, kokapena da: Karibeko hondartza batean burutzen da, non ez dagoen ezta kutzazain automatikorik ere bi or-

duko ibilbidea egiten ez bada kotxez. Horrez gain, urtean zehar, Panama hirian daukagun Tribal Gathering LAB kultur zentroa kudeatzen dut, non era ezberdinetako ekitaldiak ekoizten ditugun: emakumeen eskubideen aldeko ekintzak, musika elektroniko-ko jaialdiak, auzoko kideekin tailerrak eta LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideen aldeko




**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



ekitaldiak, besteak beste.

Panaman gaztelaniaz hitz egiten duten arren, badago hitzen bat bertan erabiltzen dutena eta hemen ez?

Panaman jargoi asko erabiltzen da. Beltz, asiarrak, indigenak, espainol, estatubatuar eta europar askoren nahasketa egon da, eta horregatik oso ohikoa da ingelesetik hartutako hitz asko espainolez esatea. Adibidez, estatubatuarrei eta europarrei "gringo" deitzen digute, militarrek heltzen hasi zirenean, berdez jantzita joaten zirez, "green go" esaten zieten. Panamako beste gauza bitxia da hitzei buelta ematen dietela, adibidez, "mopri" (*primo*) edo "que xopa" (*que pasó*) esaten dute.

Badago zerbait harritu zaituen?

Niretzat dena da oso desberdina. Nahiz eta hizkuntza berdina izan, hitz egiteko era eta esaten dituzten gauzak oso bestelakoak dira beti. Gainera, Estatu Batuek botere handia dute hemen, eta nabaritzen da bizitzeko eran.

"Ohikoa da pelikanoak, iguanak eta sugeak ikustea hemengo hondartzetan"

"Eguraldi ona izan arren, denbora librean etxean pasatzen dute, ez dira inoiz kalera irteten"



Zein da bertako janari tipikoa?

Panamak ez du janari tipiko askorik, mundu osoko nahasketa duen herria delako, baina esango nuke *sancocho* (oilasko zopa) eta platanoa koxinatuta direla gehien jaten diren gauzak. Badaude ere, *desayuno típico chino* edo *almuerzo jamaicano* bezalako plater tipikoak.

Zer egiten duzu aisialdian?

Hemen eguraldia nahiko antzekoa da beti: 34 eta 38 gradu bitartean, % 80ko hezetasunarekin, beraz hondartzara joatea ideia ona da beti. Bertan, hondartzan egiten diren gauza guztiak egiteaz gain, animalia asko ikusteko aukera dago: pelikanoak, iguanak, sugeak... Hirian geratzen banaiz, patinekin irteten naiz, edo *rooftop*-en batera joaten naiz zerbait hartzera.

Ermuaren falta nabaritzen duzu?

Familia eta lagunez gain, denbora librean erabiltzeko dugun moduaren falta sentitzen dut. Hemen, familiariek etxean pasatzen dute denbora librean, ez dira inoiz kalera irteten, egunero eguraldi ona daukaten arren. Arraroa egiten zait gehiago ez aprobetxatzea! Ordena ere faltan botatzen dut, Panama Hiria oso zaratsua eta kaotikoa baita.

Itzultzeko gogorik?

Bai, beti sentitzen da herrimina hain urrun zaudenean.

“Txillarren kozinatu zen Euskal Herrian gaur egun bizi dugun egoera”

Asier Ibaibarriaga eta Edurne San Martin · *Txillarreko sukaldaria* liburuaren eta dokumentalaren egileak



Elgoibarko Txillarre baserria urte luzez ezker abertzaleko eta alderdi sozialistako kide desberdinen isileko topalekua izan zen, ETAre su-etena ahalbidetuko zuen hizketa gun. Guztiaren bultzatzaile eta bertako jabe den Pello Rubiori (Zumaia, 1948) eginiko elkarrizketa liburu baten jaso dute Asier Ibaibarriaga ermuarrak eta Edurne San Martin eibartarrak, eta honen lagungarri izango den dokumentala ere prest dago.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Irakurleak zer topatuko du *Txillarreko sukaldaria* lan bikoitz honetan?

Edurne San Martin: Gure helburua izan da Txillarren gertatu zen guztiaren fokua Pellori jartzea, inondik inora ez zen gure asmoa hausnarketa politiko bat egi-tea eta ez dugu egin. Guk nahi genuen Pello ezagutze-ra eman, bitartekari izan eta bere baserriko sukaldea eskaini zuen pertsona horren bizipenak jasotzea.

Asier Ibaibarriaga: Bai, elkarrizketa planteatu genionean bide horretatik joan ginen: bere ibilbide pertsonalean zentratu, nondik datorren, zer ekarri dion bizitzak, ze harreman izan duen Elgoibarrekin... Liburua elkarrizketaren transkripzioa da.

Zer gertatu zen Txillarreko sukaldean?

E.S.: Bertan kozinatu zen Euskal Herrian gaur egun bizi dugun egoera. Gauza da Pellok hartu zuela hor demaseko konpromiso pertsonala bere etxeko ateak zabaltu zizkienean alderdi sozialistako eta ezker abertzaleko hainbat kideri. Momenturik gogorre-nean geunden: denok gaizki, torturak, atxiloketak, heriotzak, sarekadak, zergak... Pellok ate bat zabaltu zuen elkarrizketara eta horrek hona ekarri gaitu, ez da gutxi! ETAre su-etena, dispertsioaren amaiera... Pellori esker horren guztiaren lehen pausua eman zen; hori da guk egin dugun hausnarketa.

A.I.: Beti aipatzen da gauzetan "sukalde lana" egin behar dela eta kasu honetan Pellok kozinatzeaz gain, taxista, *errekadista* eta telefonista ardurak hartu zituen. Bi mundu desberdin batu zituen bere eskatzean: Paco Egea sozialista ezagutzen zuen alde batetik eta bestetik Arnaldo Otegi. "Batu zaitezte nire etxean, hasi hitz egiten eta ea hortik zer ateratzen den". Mahai horretara jende gehiago joango zen batzen: Jesus Eiguren, Pernando Barrena, Rufi Etxeberria, Olatz Dañobeitia, Rodolfo Ares, Joseba Permach, Urko Aiartza... Etorritakoak dira ere Patxi López eta Rodríguez Zapatero. Goi-mailako politikako dimentsioa hartu zuten hizketaldi haiek. Une

"Bitartekari izan eta bere baserriko sukaldea eskaini zuen pertsona ezagutzera eman nahi genuen"

"Goi-mailako politikako dimentsioa hartu zuten hizketaldi haiek"



gogorra zen arren, erabaki zuten kanpoan gertatzen zena gertatuta aurrera egingo zutela elkarrizketokin. 1999tik 2005era, bakea adostu zen arte egon ziren batzen eta denbora tarte horretan hainbat mugarri historiko egon ziren. Oslon eta Ginebran adostu ziren bake hitzarmenak sukalde horretan hitz egindakoa oinarritu ziren.

E.S.: Lan bat egin behar da atzetik, ezkutuko lana, erabat esker txarrekoa, eztabaida publikoetan sartu ezkeror inora ez daramana. Askotan “Baina ezin dugu egin ezer!” esaten dugu eta honek argi erakutsi du gauzak egin ditzakegula eta gure txikitik eragin dezakegula.

A. I.: Prozesu luzea izan zen eta tartean gauza asko gertatu ziren, baina ederra da ikustea berriro batzen zirela, hartutako konpromisoari eutsiz. Klandestinitatean eta diskrezioz mugitzen ziren: Jesusek bizkartzainak zituen eta komeriak egin behar izan zituzten haien isilean elkartzeko; Arnaldorentzako mezuak, oster, fruta eta ortuari artean ezkutatzeko zituen eta furgonetan eraman etxeraino, soilik generoa entregatzen zion itxurak eginez. Klandestinitatea zaintzen zuten bilerak publiko egingo balira balioa galduko zutelako.

Zelan heldu zenioten proiektu bikoitz honi?

E.S.: Orain urtebete Arrate egun bezperan herri bazkaria egon zen Arrateko zelaian eta Pelloren ondoan bazkaltea egokitu zitzaidan. Ez nuen ezagutzen, banekien arren nor zen eta bazkalostean hasi zen anekdota bat

“Lan bat egin behar da atzetik, ezkutuko lana, erabat esker txarrekoa”

“Prozesu luzea izan zen, eta klandestinitatean eta diskrezioz mugitzen ziren”



kontatzen, aipatuz egun horretan urteak zirela euren baserrian Rodríguez Zapatero egon zela bazkaltzen, zelan etorri zen bizkartzainekin eta abar... Gogorapen ugari zituela ikusita, esan nion horiek kontatu beharra zegoela, bestela galdu egingo zirela. Bera ez zihoala egitera erantzun zidan, baina norbaitek nahi bazuen... Egun horretan, iluntzean, Asierrekin elkartu nintzen, eta aipatu nion Pellok bota zidana. Gustura helduko niola holako liburu proiektu bati, baina ez nuela bakarrik egin nahi... “Eingo dogu bixok?”, esan zidan, eta hemen gaude. Nire proiektua liburua zen eta Asierrek oso garbi zeukan ikus-entzunezko bat behar zuela honek, eta hor daude biak.

Beraz liburua eta dokumentala...

E.S.: Bai eta bateragarriak dira, elkar janzen eta elikatzen dute. Dokumentalean asko esaten da, bera ikustea oso aberasgarria delako; liburuan xeheagoa jasotzen da. Pozik gaude emaitzarekin; ea orain ze harrera daukan.

A.I.: Gure asmoa zen bizpahiru egunetan egitea gra-



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)



baketa eta pentsatu genuen badaezpada kamera profesionalak eramatea. Haritz Arrizabalaga arduratu zen grabatzeaz eta geroko edizio lanez ere. Orduan konturatu ginen Pello kristoren indarra zuela: barrutik hitz egiten du, hustu egiten da eta den bezala agertzen da kameraren aurrean.

Zer izan da gauzarik zailena?

E.S.: Ni liburuaz arduratu naiz eta oso erreza egin zait: bera komunikatzaile ona da, jario handikoa, ordenatua gauzak azaltzerakoan, eta kontakizunari pasioa ematen dio. Kontatzen duen eran, ia-ia hitzik aldatu gabe doa liburuan.

A.I.: Aurrez gidoitxo bat pasatu genion eta elkarrizketa egitera joan ginenean paper mordoa idatzita zituen arren, buruz eta kronologikoki kontatu zizkigun, guk galderak egiteko ia premia barik. Itzelezko lanketa egina zuen! Dokumentalean zailena izan da, oster, hiru orduko grabaketa ordu bakarrera ekartzea. Bestalde, gure kezka nagusienetakoa izan da gaurko gazteei orain hogeitaz urte gertatutako gauzak ze erreferentziekin eman, zelan lagundu testuinguruan jartzen, argazki batzuk sartu ditugu, eta azalpen txiki batzuk gehitu dizkiogu testuari.

Dokumentala liburuaren aurkezpenen osagarri izango da soilik ala bakarkako ibilbidea egingo du?

A.I.: Leku desberdinetara gonbidatu gaituzte: Bilboko Zinebira, Lekeitioko Zine Astera, Errenteriako Giza Eskubideen Zinemaldira... Asmoa dugu Gijónera bidaltzeko, Bartzelonako Giza Eskubideen beste batera... Txirri-txirri, herriz herri mugitzea nahi dugu. Proiektatzen den saio bakoitzean, liburuak eramango ditugu jendeak eros ditzan. 1.000 ale argitaratu dira

eta dokumentalean sartzerik izan ez ditugun gauza politikak daude jasota bertan. Urriaren 7an izango da liburuaren aurkezpena Donostiako Elkar liburu-dendan, 10ean Elgoibarren dokumentalarena, 14an Eibarren, 22an Ermuan... Aurkezpenetan liburuak salgai egongo da argitaletxeak jarritako

13,50 eurotan eta

herriko liburu-dendetan eskuratu ahal izango da ere.

E.S.: Gure asmoa da Euskal Herrian zabaltzea eta gutxi gehiago. Zoragarria izango zen proiektio handiagoa izango balu eta beste bake prozesuren baten zerbait ekarri balezake isileko lan haren kontakizun honek. **Irakurtzen edo ikusten duenak, ze mezurekin nahi duzue geratzea?**

A.I.: Denok dugula barruko indar bat ezagutzen ez duguna eta ateratzen dugunean pertsonon gaitasuna azaleratzen dela.

E.S.: Niretzat azpimarra da hasieran esan dudana: txikitik zenbat eragin daiteken!



Trastelekuak
partikularrentzat



Biltegiak
enpresentzat

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com



Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

dg
Horacio Decoración
TAPICERÍA - ALTARZAK - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



“Kultura bat da hau, bizitzeko era bat. Semiei erakustie nahi deutset baserrixeko eta bizimodu hau baloratzen”

Zorion Abendibar Madariaga · Ardi moztailie



Abuztuaren 16xen Aritz semiek eta Zorionek ardi mozte txapelketa baten hartu eben parte artazixekin, eta uste barik sarixe be ekarri eben etxera. Irailaren 27xen Abadiñon jokatuko dan txapelketan izengo die lehian, 80 parte hartzaileren artien.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Ardi mozten, betidanik egin dozu Zorion?

Ba bai, ez dogu baserrixen sekule ardirik euki baina mutikotatik ibili naz ardi artien. Betzuenen Marino Lejarretan osaba bat bizi zan, Claudio, bertara ezkon-dute eta gure aittitte zanaz jueten nitzen laguntzera. Hantxe ikesi neban ardi mozten. Claudio lorazaine zan eta Arabako Oletara be jueten nitzen harekin. Han beste artzain batzukin batera ibiltzen ginen mozketa lanetan, ardi zain... Artzain erdeldun bat euen han eta harek esaten eusten “vamos a almorzar, trae la bolsa del río”, eta eskailuz beteta poltsioi! Niretzat itzela zan ha, ardi moztie bera baino haren inguruen sortzen zan girue, kulturie eta laguntasune... Ez da bihera bakarrik, kultura bat da, bizitzeko era bat gauza pilo bat emon izen deustezana; eta nire semiei erakustie nahi deusiet baserrixeko eta bizimodu hau baloratzen.

Zugarramurdi jokatu zan pasa dan abuztuaren 16xen bildots ilemozte txapelketie, eta sarixe etxera...

Semiek eta bixok artazixekin mozteko modalidadien jardun gendun III. SpedShear Zugarramurdi, bildots



"Aritzi emon eutsen bere sarixe eta pentsaukozu zelan euen... nun sartu ez ekixela! Ama negarrez pozik, ni semiaz oso harro"

ilemozte txapelketan. Hamar parte-hartzailearen artien hirugarren egin neban. Baina polittina Aritzek, semiek lortu eban. Hasiera baten urduri ipini zan eta ez ebal parte hartuko be esan eusten, ardixe lotu barik ez dakixela moztan-eta. Baina lotute moztu leixela esan euskuen eta neuk lotu eta animatu zan azkenien. Plazagizona da eta lan politte egin eban. Open kategorixan Thimoleon Resneau frantziarrak lortu eban lehenengo postue eta sarixe jasoteran mikrofotik esan eban berak txapelketa asko irebazi ditzule, eta pozgarrix zala 17 urteko mutiko bat lan horretan ikustie, "jarraipena biher dabelako lan honek, nik irebazi dotena berai (Aritzi) emon biher deutset" esan eban... Aritzi emon eutsen bere sarixe eta pentsaukozu zelan euen Aritz, nun sartu ez ekixela, ama negarrez pozik, ni semiaz oso harro... Ardi moztaille mundu honek jarraipena eukittie nahi dabela erakutsi eban Thimoleon Resnauk, hor ikusten da ze eratako pertsonie dan.

Eta hurrengo erronkie bixok irailaren 27xen daukizue, Abadiñoko probalekuen...

Euskal Herriko ardi moztailien lehenengo txapelketie jokatu da, bai. Orain bi edo hiru urte Euskal Moztailien elkartie sortu eban, Ipar Arrinda lekittarra eta Joseba Attard bedaruarra izen die bultzatzaile nagusixek, eurek be moztailak. Europa mailan Euskal Herriko seilue lortu dabe. Diru asko lortu dabe administrazino publiko eta hainbat erakundetatik, eta Abadiñoko Udalak lan haundixe egin dau egun hau antolatzeke. Egun osoko gitaraue izengo da, www.

moztailleak.eus atarixen dago informazino guztixe. Euskal Herriko eta mundu mailako txapelketie izengo da eta era bitara jokatu da txapelketie, artazixekin eta makiniaz. Benetan ikusgarrix da zelan moztan daben makiniaz be, bizkor eta garbi-garbi.

Egun borobile izengo da orduen...

Bai; Abadiñora Euskal Herrittik, Irlandatik, Eskoziatik, Galestik, Inglatteratik, Españatik, Katalunyatik, Fratziatik, Alemaniatic, Holandatic, Kolonbiatic eta Uruguayttik datoz moztailak, 80 izengo gara eta 1.000 bat ardiri moztuko deutsegue artilie. Artisau azoka eta umientzako tailerrak be egongo dira probaleku kanpuen.

Euskal Herri mailan badago afizinue eta lan hau mantentzeko borondatie, ikusten danez...





AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96

zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

TXALAPARTA



Eguneko menua,
razioak, ogitarteak,
pintxo poteoa...

Erdikokale 13 · ERMUA

"Nire semiek nerabiek die, adoleszentiek eta euren adineko askok ez dakixe egunero biher dogun janarixe nundik eta zelan sortzen dan, ahazten gabiz"

"Mentalidadie aldatzen doie, onerako edo txarrerako"

Bai, eta hori da bultzatu nahi dana. Jakoba Errekondori irratixen entzun neutsen Instagram eta Facebook eta holakuek bere lanaren dibulgaziorako garrantzitsuek diela, baina ezin garena hor geratu. Nire semiek nerabiek die, adoleszentiek eta euren adineko askok ez dakixe egunero biher dogun janarixe nundik eta zelan sortzen dan, ahazten gabiz. Eta askatasune be galtzen edo urritzen doie, euki leikezan animalia kopurue dala eta ez dala, adibidez. Baserriko lanak ikekie, zaintzie, kulturie, baserriko lanen onurie, baserriko produktuek baloratzie... garrantzitsue dala pentsetan dot eta nire semiei hori transmitidu nahi deusiet. Eta apurkan-apurkan ikusten dot jentie be konturetzen hasi dala baserriko produktuek eta norberak ekoiztu leikezanak ze inportantzi dauken. Ardi mozten gainera ez dau animalixen tratu txarrik eta eskuek leun leun izten ditxu, ikusgarri suabe geratzen

Parte-hartzaileak



EUSKAL HERRIA

Gexan Sainte-Marie *Landakano*
Mikel Velasco *Astoria*
Mikel Galvez *Estorcion*
Zorion Abendibar *Mallabia*
Aritz Abendibar *Mallabia*
Joseba Ugaldes *Leizor*
Josu Ekdoin *Leizor*
Kike Pasa *Uztapel*
Ipar Arrinda *Leizor*
Xabier Gallardon *Uztapel*
Jon Axular *Leizor*
Marie D'Epagnier *Leizor*
Joseba Danborjona *Uztapel*
Jon Sainte-Marie *Landakano*
Mikel Negueba *Leizor*
Laurent Paris *Uztapel*
Mikel Etxebarria *Dona*
Andoni Eslava *Uztapel*
Stephane Gelhabe *Uztapel*
Rafa Beorlegi *Uztapel*
Romain Jonquet *Uztapel*
Pablo Iturbide *Uztapel*
Unai Barrenetxea *Uztapel*
Julen Izurza *Uztapel*



ESKOZIA

Lewis Hardman *Uztapel*
Archie Paterson *Uztapel*



IRLANDA

Ivan Scott *Uztapel*
Ben Scott *Uztapel*
Christopher Begley *Uztapel*



GALES

Lly Evans *Uztapel*
Philip Price *Uztapel*



INGALATERRA

Nick Groves *Uztapel*
Luke Parkhouse *Uztapel*



ESPAINIA

Pedro Vera *Uztapel*
Luis Sorrosal *Uztapel*
Jaime Cólera *Uztapel*
Cassara Jimenez *Uztapel*
Kevin Daniel *Uztapel*
Ismael Perez *Uztapel*
David Puertes *Uztapel*
Carlos Puertes *Uztapel*
Cesar Luis Clavijo *Uztapel*
Paco Gonzalez *Uztapel*
Rael Royo Duran *Uztapel*
Antonio Osuna *Uztapel*
Tony Gonzalez *Uztapel*



FRANTZIA

Pierre Grancher *Uztapel*
Jeremy Leygonie *Uztapel*
Arnaud Massoubre *Uztapel*
Loic Leygonie *Uztapel*
Thimoleon Resneau *Uztapel*
Maureen Cadet *Uztapel*
Louise Higelin *Uztapel*
Jessey Lunel *Uztapel*
Lucie Grancher *Uztapel*
Marcel Etienne *Uztapel*
Aubane Nardetto *Uztapel*

jatzuz. Zezenketa kendu egin dabe Karrantzan adibidez, La Virgen del Sucesoko jaixetan, bozketa baten ez egittian alde atara dalako jentie. Asto-probek eta idi-probek eta holako kirolek ez dot uste urte asko daukienik aurretik. Ikusiko da baina mentalidadie aldatzen doie, onerako edo txarrerako aldaketie dator.

OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 - Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI
Illeapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Irailaren 14an itxi zen Jubiletxe taberna

Hogeita bederatzi urteko jarduna eta gero, Asun Garitagoitiak eta Agustin Udabek Mallabiko jubiletxe tabernako ateak itxi zituzten irailaren 14an, igandea. Agur berezi horretan, Mendibil Abesbatzak hiru kantu eskaini zituen eta jarraian luntx ederraz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.



Bisita gidatua egingo da urriaren 19an Zengotita auzoko baserrien arkitektura ezagutzeko

Europako Kontseiluaren ekimenez eta Europar Batasunaren lankidetzarekin, Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatzen dira urtero Europan zehar, 2001etik aurrera. 25. edizio honetan, arkitektura-ondarea ekarriko da erdigunera eta, herritarrak horretara hurbiltzeko, bisitak, tailerrak, erakusketak eta jarduera artistikoak konbinatuko dira. Gerediaga Elkartek koordinatzen du Durangaldeko eskaintza, eskualdeko udalekin eta Aldundiarekin batera, eta aurten zortzi bisita gidatu kudeatuko ditu, denak euskaraz, urriaren 4tik 26ra bitartean. Horren baitan, Zengotita auzoko baserriak aztertuko dira urriaren 19an, 11:00etatik 12:30ak arte, "Zengotita auzoko baserrien arkitekturaren aldaerak" izenburupean. Parte hartu nahi duten mallabitarrek 943 17 66 91 telefonora dei dezakete, edota kulturetxea@mallabia.eus helbidera mezua idatzi. Gainontzeko interesatuek ondareabizkaia.eus webgunean eman beharko dute izena. Gerediaga elkartearen webgunean irakur daitekeenez, "duela 500 urte baino gehiagotik, baserria izan da gizarte berezi bat garatzea ahalbidetu duen elementu arkitektoniko ezin hobea", eta Zengotitan gai horretan sakontzeko aukera egongo da.



HERGA
taberna

Bitsi-denda Tailer propioa Erleja-denda

Senén
1978

Disceinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Asteunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 943010527

juan10@yahoo.es
Ermua (Bizkaia)

TAXI

Juanan
635 70 90 90



Ermua Abeletxe baserritik ikusita . Argazkilaria: Nacho del Rio



Euskal Birusak bazkidetza kanpaina egingo du

Euskal Birusa Elkartek jakinarazi duenez, bazkide berriak lortzeko kanpaina burutuko du urriaren 8tik azaroaren 8ra bitartean. Berau sustatzeko, argazki jendetsua aterako dute nahi duten euskaltzale guztiek irailaren 28an San Pelayoko parkean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Euskal Birusa Elkartek duela 17 urte egin zuen azken bazkidetza kanpaina (2008an) eta, kide kopurua handitzeko helburuarekin, deialdia egingo du udazken honetan ere, urriaren 8tik San Martin azoka egunera bitartean (azaroak 8), hain zuzen ere, "Baietz 300, berriro!" lelopean. Elkartek horrek hainbat ekin-tza burutzen ditu urtean zehar herrian euskara sustatzeko helburuarekin eta, horiei guztiei jarraipena emateko, ezinbestekoa da bazkideen ekarpena: San Martin azoka, *Drogeteniturrri* aldizkaria eta *Drogeteniturrri.eus* webgunea, San Juan sua, Hartza Eguna, Ermuan Kantuan, Laburbira eta Berbetan jardunaldiak, besteak beste.

Gaur egun elkartek 270 bazkide inguru ditu eta, aurtun burutuko den kanpainarekin, 300 bazkide izatera heltzea da erronka. Arduradunek azaldu dutenez, "bazkideek elkartearen jarduna ekonomikoki babesten dute, baina horrez gain jardun horren berri jasotzen



dute eta horiekin eta elkartearekin lotutako erabakietan parte har dezakete, nahi izanez gero". Taldera batu nahi direnek elkartek banatuko duen diptikoa bete ahal izango dute, *drogeteniturrri.eus* webgunean egongo den lotura erabili edota Euskal Birusaren bulegora gerturatu (Erdikokale zeharbidea 2, 1. pisua).

Urteko kuota arrunta 44 eurokoa da, eta gazteek, pentsiodunek eta langabetuek, aldiz, 25 euro ordaindu beharko dituzte.

Argazki jendetsuak

Kanpainari ikusgarritasuna emateko, argazki erraldoia egingo da San Pelayo parkean irailaren 28an, igandea, 13:00etan, eta euskaltzale guztiak hurbildu ahal izango dira bertara. Azken argazki jendetsua 2008an atera zen, "Euskaraz bagara" izenburupean, eta aurrekoa 10 urte lehenago, 1998an, "Guk euskarari bai" leloa erabilita.



ARTARRAI

MENDI TALDEA · ERMUA



artarrai.blogspot.com
www.artarrai.com



artarraitmenditaldea@gmail.com
artarraifederatuak@gmail.com



638 05 06 34 (gestio orokorrak)
688 71 00 90 (federatuak)



Informazio gehiago ostegunero
19:15etik 20:15era
San Antonio ermitan



artarrai mt



WhatsApp taldea

**Artarrairen
sorrera**

**Taldearen
egungo
egoera**

**Mendizaleak
Ermua
CDaren kide**

Buzoiak

Antolaketa

**Bazkide
kopurua**

**Ekintzak
argazkietan**

**Irteerak eta
protagonistak**

Bertsoak

**Euskararekiko
konpromisoa**

**Bihotzean
betirako**

**"Artarraia lau
haizetara"**

**Zuhaitz
Eguna**

**Abentura
handiak**

**50.
urteurreneko
egitaraua**

Artarrairen sorreratik...

70eko hamarkadan, Ermuko mendizale batzuek ARTARRAI MENDI TALDEA izeneko elkarte sortu zuten. Izen hau, Urko mendiaren maldan, Santa Ana auzoaren gainean kokaturik dagoen Artarrai mendiaren omenez aukeratu zuten. Garai hartan Santi Uriarte izendatu zuten taldeko lehendakari.

Artarrai MT-aren lehenengo egoitza, Probaleku inguruan kokaturik zegoen Matxineneko Etxea izan zen; baina urte gutxi geroago, sute batek eraikuntza eta bertan zegoen material zein informazio guztia erre zuen, eta ondorioz elkartea desagertu egin zen. Garai hartan irteerak inguruko mendietara izaten ziren.

Geroago, 80ko hamarkadan beste mendizale batzuek taldea berpiztea erabaki zuten. Berriz, eratze akta eta estatutuak erregistratu zituzten (Jose Cruz Urreta lehendakari izendatuz), eta lanari ekin zioten. Urteetan egoitza Erdikokaleko Joxebentaneko etxean egon zen. Urte horietan mendi irteerak auto partikularretan egiten ziren, parte-hartzaile gutxi baitziren. Dena den, Pirinioetako zein Europako mendietako tontorrik garrantzitsuenak igo zituzten orduan.

"Elkartea sortu eta urte gutxira, sute batek erre zuen Artarrai MTren egoitza zein material eta informazio guztia"



Gaizka Areitioaurtena bazkidearen federatu txartela, 1975.

Nombrar los siguientes miembros de la -
Junta Directiva de la Asociación: -----
* PRESIDENTE: Don José Cruz Urreta Antxus
tegui.-----
VICE-PRESIDENTE: Don Luis María Malaxe-
cheverría Elordi.-----
SECRETARIO: Doña María Soledad Daira --
Pérez.-----
TESORERO: Don Juan Cruz Gurtubai Olalde.
Y, VOCALES: Don Roberto Hidalgo Larringan,
Don Miguel Berrizbeitia Aramburu y Don Víctor
Saez Rodríguez.-----

Bigarren Zuzendaritza Taldeko kideak.

1992. urtean estatutuak legedi berrira egokitu ziren eta egoitza Ongarai auzoko Gure Etxean kokatu zen. Geroztik Artarraik hainbat lehendakari izan ditu, besteak beste, Carmen Allende, Javier Alberdi eta gaur egungo David Elejalde.

Urteak joan ahala, bazkide kopurua eta partaidetza handituz joan zen, eta harrezkeroztik irteerak autobusez egiten hasi ziren.

Egoitzei dagokienez, batetik bestera ibili izan gara Teresa Murga eraikinean, Izarran eta azkenik Izelaieta kaleko San Antonio ermitan.

"Urteak joan ahala, bazkide kopurua eta partaidetza handituz joan da; egoitzei dagokienez, batetik bestera ibili izan gara"

... taldearen egungo egoerara

Artarraik adin guztietako 650 bazkide inguru ditu. Bere helburu nagusia da herritarren artean, mendiaz eta ingurune naturalez gozatzeko aukera sustatzea, kirola eta kultura uztartuz.

Ekintza nabarmenen artean, eskualdean eta Pirinioetan egiten diren irteerak aipa daitezke (maila edota zailtasun ezberdinekoak parte-hartzaile oro asetzeko asmoz), egun bakarrekoez zein asteburu osokoak, batzuetan mendi soilak eta bestetan ibilbide luzeak Euskal Herria zeharkatuz. Baina badira arroilen jaitsierak zein elur jarduerak, erraketak batez ere desio dituztenak. Ausartenak, adrenalina blai, segurtasun neurri guztiekin *ferratetan* zoriontsuak dira.

Beste batzuek ordea, gustukoago dituzte ibilbide luze baina lasaia, eta Kantauri itsasertzeko ibilbidean barrena edo Orreagatik Compostelara ino errones dihardute ehunka kilometrotan.

Hiru Txikiak trail

Azken garaian gailurrez gailur ziztu bizian dabil-tzan mendi korrikalariak edo *trail runner*-ak ugaritu dira, eta izugarri-ko arrakastaz antolatzen da **Hiru Txikiak Trail** lasterketa, Emilio Carralen gidaritzapean.

Elkartearen beste jarduera esanguratsu bat **Mu-**



garriz Muga-
rri da, Ermuko lurralde-mugarriak ezagutarazten dituen. Eta nola ez, Santi-xauean **Urko 69tan ezetz!** horren izen erakargarria duen Urkora igoera neurtua.

Azken urteetan mendiarekiko dugun pasioa

eta elkartasuna uztartuz, **Urko non stop** **Javi Alberdi** omenaldia ekitaldi solidarioa eta hunkigarria ere antolatut dugu.

Heldu, gazte eta ume, guztiek dute tokia Artarrain, eta "famiak" ibilbide erakargarri eta jendetsuak ari dira antolatzen. Aipatutakoez gain, argazki lehiaketa, diaporamak eta hitzaldiak ere antolatzen ditugu.

Baina mendiaz gozatzeaz gain festarako eta adiskidetasunerako tarteak ere izaten dugu, eta sagardotegieki eta babajane horretarako aukera paregabea ematen digute.



Hainbat zerbitzu

Mendi elkarteak beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola mendi-materiala eta mapak uztea, eta batez ere bazkideak federatzeko kudeaketa.

Gure egoitza Izelaieta kaleko San Antonio ermitan dago, eta astero ohiko bilera egiten da bertan, ostegunero 19:15-20:30 bitartean.

Artarrainen lankidetzaz-espiritua gure sare-soziale-tan eta blogean islatzen da, non irteeren esperientziak eta argazkiak partekatzen ditugun.

Zatoz lasai gugana, zabal hartuko zaitugu!

Artarraik ekinez ekin bidean darrai!

CALENDARIO DE EXCURSIONES PARA EL AÑO 1975	
Enero	1 - URKO 791 m.
Febrero	2 - Balguerni 1154 m. (Todo el día)
	16 - Aratz 1442 m. -
Marzo	2 - Yoor 1414 m. -
	19 - Travesía Guardia-Exte-Larraz (Gambu y Tondok)
	27-30 - Selva de Oza con ascenso al Petre-chena (2366 m.)
Abril	6 - Gambu 1408 m. (Todo el día)
	20 - VI Marcha Orientación, Organizada G. M. Arrola (Ansoaia)
	27 - Kapilduy 1180 m. (Todo el día)
Mayo	1 - V Marcha Regulada (Infantil Juvenil) Indamendi (Zumaya)
	4 - Día del Finalista (Lugar a designar)
	11 - III Marcha Regulada (Infantil Juvenil) (Delegación de Alava)
	25 - Irumugarrieta 1427 m. (Todo el día)
Junio	8 - Marcha Regulada de Fondo -
	Lagun-Onak (Azpetiti)
Junio	15 - Marcha de Orientación Regional Euzkaldun (Ardozo)
	21-22 - Mesa de los 3 Reyes 2438 m.
Julio	13 - Ermas 280 m. (Todo el día)
	19-20 - II Campamento Infantil Juvenil Regional - Lagun-Bernak (urzuen Naurra)
Septiembre	7 - Aranguren 1163 m. (Todo el día)
	21 - Día del Recuerdo en Besside
	28 - I Marcha de Orientación Juvenil Regional - Nardón - Itazab
Octubre	12 - VII Marcha de Orientación Zona Costa - G. M. Arrola (Ermas)
	28 - Anaitasun Eguna (Lugar a designar)
Noviembre	1-2 - Desfiladero de Cain (Cabriles)
	26 - Gorbea 1475 m.
Diciembre	8 - Comida de Hermandad
TRAVESIAS SIN DESIGNAR FECHA	
Zumarraga - Mitzaga	
Puerto de Oskua - Puerto de Azaceta	
MARCHA REGULADA (SOCIAL)	
Ermas - Ermas (Urko, Oiz, Egoarbitza)	

Mendizaleak, Ermua Club Deportivoren kide

Ermuko mendizaletasuna Artarrairen sorrera baino lehenagokoa da eta, hasieran, mendizaleak Ermua Club Deportivoko kideak ziren. Elkarre hain 1951ko maiatzaren 1ean sortu zen.

Ermua Club Deportivoa jaio zenean, mendizaletasuna, euskal pilota, futbola, atletismoa eta txirrindularitza sailak zituen. Hala, bere armairian, baloi batez gain, pala bat eta mendiko makila bat ikus daitezke.

Horren adibide nabariena Manuel Olaizola (Imanol) mendizalearena da. Euskal Herriko ehun tontor garrantzitsu igo ondoren, 1956an, "Ehun Mendietako Mendizaleen" anaidian, zerrendako 523. zenbakiarekin agertzen baita Ermua CDaren izenean.

Bere garaian, ondo merezitako mendizaleen omenaldia jaso zuen Ermuan.

Erronka horrek, mendizaleak ehun tontor nabarmen igotzera bultzatzen ditu; betiere ahalegina, gainditze-espirtua eta naturarekiko errespetua sustatuz.



"Erronka horrek ehun tontor nabarmen baino gehiago igotzera bultzatzen ditu mendizaleak, betiere ahalegina, gainditze-espirtua eta naturarekiko errespetua sustatuz"

"Bere garaian, mendizaleek ondo merezitako omenaldia egin zioten Manuel Olaizolari "Imanol"

Lehiaketa baino gehiago, hainbat hamarkadatan zehar mendia bigarren etxea bihurtu duten mendizaleei egindako omenaldia izaten da.

Gaur egun zerrenda horretan Artarraiko beste lau kide ere agertzen dira: Edu Campos, Pedro Alconero, Bingen Aranberria eta Koldo Aranberria.



Historiak gurtze4/Mendizaleak gurtze4

Número	Nombre y apellidos	Num. Centenario	Año	Club
4065	ALCONERO GARCIA, PEDRO MARIA	1	2012	ARTARRAI G.M.
4080	ARANBERRIA ALLENDE, BINGEN	1	2012	ARTARRAI G.M.
4081	ARANBERRIA BILBAO, KOLDOSIKA S.	1	2012	ARTARRAI G.M.
5961	CAMPOS DIAZ, EDU	1	2008	ARTARRAI G.M.

Núm. del Reg. Gral.	Finalista de los Cien Montañas	Año de Ingreso	Club o Sociedad
— 0 —			
394	Juan Carlos ODRIOZOLA OSA	1952	BILBAO Alpino Club
61	Indalecio OJANGUREN ARRILLAGA	1928	U. D. BILBAO
247	Eliseo OJANGUREN CHAPARTEGUI	1947	C. D. BILBAO
624	Andrés OJANGUREN CHAPARTEGUI	1956	C. D. BILBAO
623	Manuel de OLAIZOLA ALEORIA	1950	C. D. ERMUA
399	Maria Angeles OLANO MENDIZABAL	1952	BILBAO Alpino Club
224	Eugenio de OLAYARRIA BICARREGUI	1947	C. D. BILBAO
289	Angel OLOJON LOPEZ	1948	C. D. NAVARRA
36	Daniel OSATE LANDA	1924	C. D. BILBAO
534	Miren ORMAECHEA GARRIDO	1956	C. D. VITORIA
535	José María ORMAECHEA GARRIDO	1956	C. D. VITORIA
405	Graciano ORMAECHEA PAGOAGA	1952	C. D. EILAR
444	Jesús ORMAZABAL BALBAS	1953	C. D. FORTUNA
142	Gerardo ORTIZ BAQUERO	1934	C. D. BILBAO
48	José ORTIZ DE PINEDO	1926	Athletic Club. (F. V. A.)

Mendi gailurretan

Mendi-buzoiak mendien tontorretan jartzen diren ontzi txikiak dira, gehienetan metalezkoak. Haien jatorria XX. mendekoa da, bereziki Europan, eta hasieran konkista baten ikur eta mendizaleak orientatzeko jarri ziren.

Buzoietan normalean koadernoak edo erregistro-libretoak egoten ziren, mendizaleek mezuak utzi, igoeraren berri idatzi edo, besterik gabe, lortutako helburuaren lekukotasuna uzteko. Gaur egun, askotan, buzoiaren diseinuak eskualdeko elementu kulturalak edo historikoak islatzen ditu, hala nola baserri-formak, aizkorak edo ikur sinbolikoak.

70eko hamarkadan, Jose Felix Igartuak eginiko lehenengo buzoiak jarri zen Artarrai mendian, jai giroan, dantzariz eta txistulariz lagundurik.

Hogei urte geroago, Mendiko V. Aste Kulturalaren egitarauaren baitan, 1997.eko urriaren 5ean, buzoi berria jarri zen, guztiz apurtuta zegoena ordezkatzuz. Orduko hartan, gehiegi pentsatu gabe, etxeetan ohikoa den gutunen postontzi soil bat jarri zen.

Geroago, 2009ko maiatzaren 31n, Jose Ramón Egañak eginiko etxetxo metaliko berri bat jarri genuen buzoi bezala, eta baita beste figura bat ere: indargetzaile edo *amortiguadore* bat, Ermuko autogintza jarduera ekonomikoaren oroigarri. Azken hauek oraindik bertan dira.



Artarrairen lehen buzoiak.



Artarrairen bigarren buzoiak.



Artarrairen hirugarren buzoiak.

Denok gara Artarrai

Artarrai mendi taldea da, baina taldearen baitan pertsonak daude eta haiei esker taldeak aurrera jarraitzen du.

Denon iritziak jasotzen ahalegintzen gara eta jakitun gara mendia ulertzeko oso modu desberdinak daudela: batzuek aisialdi ikuspuntutik ematen diote garrantzia mendiari; beste batzuek, naturaren ikuspuntutik; badira kultur, leku eta pertsona desberdinak ezagutzeko aukera ikusten dutenak, edota jarduera fisikoa eginez sasoian mantentzea bilatzen dutenak. Norbera bere etxekoa eta etxe berberaren baitan mila aburu. Holakoak gara gu, batzuk gazteak, beste batzuk adinekoak, ezkongabeak eta ezkonduak, erretiro hartu berriak edota gaueko parrandez nazkatutik daudenak. Denok gara Artarrai.

Taldea nahiko ondo kudeatzen ikasi dugu, eta azpimarratzeko modukoa da gure lan egiteko era: dena gutxi batzuen esku gelditu barik, ardurak banatzen eta elkarri laguntzen ikasi dugu, errespetuz eta irribarre

"Lan guztia gutxi batzuen esku utzi beharrean, ardurak banatu eta elkarri laguntzen ikasi dugu"

"Urtez urte oso ekintza desberdinez eta aberatsez osatutako egutegia aurrera ateratzea lortu dugu"



batez. Artarraiko kideak ondo pasatu nahi dugulako, hori da gure helburua.

Besteak beste, egutegia egiteko modua da aipagarriena —mendi talde batean gauza askotaz hitz egin behar da, mendi ibilbideez eta, gustatzen ez bazaigu ere, burokraziaz eta bulego lanaz ere—. Egutegia denon artean osatzen dugu. Kideek proposatutako irteerak egutegian sartzen ditugu, proposatzen duena irteeraren arduradun bihurtuz. Nahiz eta gero, jakina, guztion laguntza izango duen, irteera antolatzeaz bera arduratuko da. Horrela bada, lortu dugu urtez urte oso ekintza desberdinez eta aberatsez osatutako egutegia aurrera ateratzea.

Egun batean urte osoko jarraibideak definitzen ditugu. Egun hori Batzar Orokorreko eguna da, eztabaidatu eta erabaki garrantzitsuenak hartzeko gunea, ondo eginak zoriondu eta hain ondo irten ez direnen gainean hausnartu eta konponbidea asmatzen saiatzeko lekua. Batzarra irekia izaten da eta urria aldean egiten da, herriko elkarte gastronomiko batean. Urtez urte elkarte desberdin batean egiten da, horri esker bazkideok herriko elkarte ia guztiak ezagutzeko aukera izan dugu, herriko sukaldariak prestatutako gutzietz disfrutatzeak parada eta beti umore eta al-darte onean, gora begiratu eta beste tontor berri bat egiteko ilusioarekin!



Berrogeita hamar urte mendian bat eginez!

Duela mende erdi sortu zenetik, Artarra natura eta mendiarekiko pasioaren eta adiskidetasunaren elkargunea izan da. Gaur, iraganari begiratuta, grafiko hau ez da zenbakiz osatutako marra hutsa: mendi talde hau handi egiteko energia, gogoia eta ametsak batu dituzten guztien historia delako.


Bazkide berri bakoitza gailurre-rantz egindako urrats bat gehiago izan da, gure irteeretan aurpegi berri bat, beste lagun bat hain zuzen ere.

Ekinez ekin, erronkei aurre eginez eta ametsak gauzatuz tinko dihardugu, ia beti une gozoekin eta, zoritxarrez, inoiz baita mingotsekin ere.

Izan zirelako gara, garelako izango dira. Eskerrik asko guztioi!


2025

Artarraiko bazkideak guztira: 653



2025

Federatuak guztira: 501



Bazkide kopurua urteka





Abodi mendilerroa.



Aratz.



Anayet mendia.



Foz de Fago arroila.



Anboto.



Artzanburu.



Aneto.



Formigal.



Aspe.



Ezkaba.



Ermua-Lekeitio ibilbidea.



Holtzarteko zubia.

MUGARRIZ-MUGARRI



FERRATAK



PIRINIOAK



MEMORIAL SOLIDARIOA



100 URTE 100 MENDI



HIRU TXIKIAK



PICOS DE EUROPA



**FAMILIENTZAT MENDI
IRTEERAK**



BARRANKOAK



PIRINIOAK



DONEJAKUE BIDEA



Hiru Erregeen Mahaia.



Sotres.



Jaizkibel.



Sorrosal ferrata.



Leungane.



Mendi totorrean.



Mugarriz mugarri.



Riglos.



Palomares.



Toubkal.



Pimene.



Guarako mendilerroa.

Euskararekin bat!

600 bazkide baino gehiago dituen Artarrai hau adin, hizkuntza eta ideologia askotariko lagunok osatzen dugu. Eztabaidarik gabe, mendizaletasunak guztiok batzen gaitu. Euskararekin konprometituta gaude, bere sustapenarekin eta normalizazioarekin.

B logean, WhatsApp taldean, karteletan, egutegian eta ahal den guztietan euskara presente dugu eta egiten diren jarduerak ere, ahal den neurrian, hainbat testuingurutan egokitzen ditugu euskara beti presente egon dadin. Horrela, gazteenei eskainitakoetan ahalegin berezia egiten dugu denon artean euskara gehiago entzun dadin, eta umeei zuzendutako jarduera gehienak euskara hutsean egiten saiatzen gara, hala nola, Zuhaitz Eguna, Ireki Begiak eta Erne Belarriak, familia irteerak...

Euskaraldian, Ermuan Bagara ekimenean edo Korrikaren edizio ezberdinetan aktiboki parte hartzen dugu. Baita Berbalagun bezalako egitasmoarekin edo ikastetxeekin ere elkarlanean aritu izan gara txangoak antolatzen. Gure herriko tokiko euskarazko komunikabide honetan, *Drogeteniturrri* aldizkarian ere, hasiera hasieratik Artarrai Mendi Taldearen presentzia etengabea izan da.

Aurten, 50. urteurrena ospatzen ari garela, Artarraitik Ermuan gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko eta normalizatzeko urrats sendoak ematen jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu.

Eskalada, arroiak
Koben miaketa
Udako argazkien
Hainbat lehiaketa
Artarrai mendi puntan
Dagon pioleta
Mugarritz mugarrria
Mila mendi buelta
Berrogeitamar urte
Pasartez beteta

Egilea: Josu Araiztegi

Entzuteko:



Duela mende erdi
Zenbat lan eta ide
Aurre eginez aldapa
Harri ta sasiei
Omenaldi txiki hau
Mendizale haiei
Geldieziñak ziren
Ermuar gazteei
Guzti honen hazia
Landatu zutenei

Mundu osoa dabil
Urkora igotzen
Mendizaletasuna
Ari da sendotzen
Baina hauxe guztia
Ez da errez lortzen
Zorionak Artarrai
Esan daigun ozen
Mende erdi Ermua
Ta mendia lotzen

Mendian gora eta
behera gabiltzala
Zeruan eguzkia
Artarrain itzala
Egindako ahalegiña
ez denez hutsala
Mende erdi ospatu
merezi bezala
Aurrera jarraitzeko
balio dezala

Egileak:

Josu Araiztegi,
Jon Unanue eta Asier Unanue

Entzuteko:



Bihotzean betirako

Berrogeita hamar urte hauetan, mendizale ugariri atsekabez adio egin behar izan diegu. Heriotzak mendian harrapatu zituen batzuk; beste batzuk, ordea, modu naturalean zendu ziren. Batzuen zein besteena ere bada gure urteurreneko ospakizun hau.

5 0. urteurren hau ospakizun urtea da eta gure klubaren historia gogora ekartzen ari gara: mendiarekiko grinak markatu duen historia, baina baita aztarna ezabaezinak utzi dizkiguten zoritxarreko uneak ere. Bihotzez gogoan ditugu gure jardueretan zehar istripuak izan dituztenak eta bidean galdu ditugunak, maite zutena egiten bizi eta jardun zuten lagun horiek. Haien aztarnek diraute gure urrats bakoitzean.

Era naturalean zendu zaizkigun bazkideak ere omen-du nahiko genituzke, haien gogoekin eta ilusioarekin klub hau familia handia bihurtu baitute.

Horiek lagun, kide, bazkide guztiak konkistatzen dugun gailur bakoitzean eta gozatzen dugun paisaia eta bide bakoitzean bidelagun ditugu bihotzean.


Urteurren hau eurena ere bada, jaso dugunaren eta bizirik daukagun mendizale espirituaren parte direlako.



Naturaren edertasuna

Mendien isiltasuna, itsasoaren indarra, hosto baten xehetasunak... Naturak une paregabeak eskaintzen dizkigu, eta haietako batzuk "Artarrau lau haizetara" argazki lehiaketan jaso izan ditugu.

Artarraik ez du jarduera askorik antolatzen udako oporraldian. Baina herria zaintzen edo hondartzan eguzkitan txigortzen geratzen direnak izan ezik, asko dira mendira joaten jarraitzen dutenak. Horregatik, lagunak nondik nora dabiltzan ezagutzeko, txangoak egiteko ideia berriak



hartzeko eta gure blogari bizitasuna emateko asmoz, udako argazki-lehiaketa xume bat antolatzen ari gara 2009. urteaz geroztik.

Parte-hartzaileek mendiarekin lotutako jardueretan ateratako bina argazki aurkezten dituzte. Irudian pertsona edo arrazoi identifikagarriren bat agertu beharko da, argazkiaren originaltasuna eta titulartasuna bermatzeko.

Bidalitako lan guztiak ikusgai izaten dira blogean, eta aditu batek aukeratzen ditu saria jasoko duten bi onenak. Hala ere, parte-hartzea sustatzeko asmoz, bada hirugarren sari bat, sarituak ez diren parte-hartzaileen artean zozketa bidez aukeratzen dena.

Hona hemen 2025era arte izandako lehen sariaren irabazleak:

- 2024 Oier Viteri
- 2023 Judith Hidalgo
- 2022 Jokin Arano
- 2021 Ana Agirre
- 2020 Jokin Arano
- 2019 Ruben Rivero
- 2018 Ekaitz Muñoz
- 2017 Izaro Elejalde
- 2016 Patxi Jato
- 2015 Iosu Ayala
- 2014 Iosu Ayala
- 2013 David Elejalde
- 2012 Marisa Carrasco
- 2011 Itziar Chaver
- 2010 Andres Luengo
- 2009 Luis Vicente

Zuhaitz Eguna

Artarrairen 50. urteurrenaren ospakizunean, harrotasunez azpimarratu nahi dugu naturarekiko gure konpromisoa hobekien islatu duen ekimena: Zuhaitz Eguna.

Azken 15 urteetan, jarduera hau aire zabaleko egun bat baino gehiago izan da: ingurunea leheneratzeko eta babesteko ahalegin kolektibo bat izan da, eta, aldi berean, belaunaldi berriei natura maitatzen eta haren zaintzaren garrantzia ulertzen irakatsi diegu.

Udaberriro, eskola-umeak, familiak eta Artarraiko kideak Joxio inguruan elkartzen gara mota askotako zuhaitz autoktonoak landatzeko: pagoak, haritzak, arteak, intxaurrondoak...

Zuhaitzak landatzeko ekintza fisikoaz harago, jarduera hau balio handiko esperientzia hezitzailea izan da. Gainera, ekimen honek belaunaldien arteko lotura sendotzen lagundu du, gurasoek, aitona-amonek, gazteek eta seme-alabek helburu komun baten alde auzo-lanean aritu baitira: etorkizunerako opari berdea uztea.

Hamabost urte hauetako lanaren eragina nabarmena da: 3.000 zuhaitz baino gehiago altxatzen dira gaur

egun gure ahalegin kolektiboaren testigantza bizi gisa. Zuhaitz horiek ingurumenari onura ekartzeaz gain, gure klubaren iraunkortasunarekiko konpromisoaren ikur bihurtu dira, mendiarekiko errespetua defendatuz bost hamarkadetan zehar.

Mugarri hau ospatzen dugun bitartean, ingurumenaren babesarekiko gure konpromisoa berresten dugu. Horregatik, ilusioz jarraitzen dugu ekimen honetan edo antzekoetan lanean, ziur baikaude landatu dugun zuhaitz bakoitza planeta osasuntsu eta jasangarriago baterako urratsa izan dela.

"Hamabost urte hauetako lanaren eragina nabarmena da: 3.000 zuhaitz altxatzen dira gure ahalegin kolektiboaren testigantza bizi gisa"



Abentura handiak...

Ondoko lerrootan, taldeko kide ezberdinek euren esperientziak kontatzen dituzte lehenengo pertsonan. Bizipen hauek osorik irakurtzeko edota entzuteko, eskaneatu QR kodea.



Mont Blanc (Frantzia-Italia), 4.805 metro.
Andoni Areitioaurtena, 1975:

"Goizaldeko 2:00etan abiatu ziren Goüter aterpetxetik. Gau argia, garbia, hotza, elur izoztua. Lau ordu behar izan zituzten Alpeetako mendi nagusien gailurra zapaltzeko. Ametsa egia..."



Kilimanjaro (Tanzania), 5.891 metro.
Ricardo González Izarra, 1976:

"Abuztuaren 3ko goizean tontorrik altuenera iritsi ginen, Uhuru Point-era. Bertan ikurrina lotu genuen hitz hauek grabatuta daukaten metalezko plaka baten ondoan: Uhuru Point - Askatasunaren gailurra..."



Toubkal (Maroko), 4.167 metro.
Mari Carmen Allende, 1992:

"Hurrengo goizean tontorrera heldu ginen, pioleta eskuan eta kranpoiak oinetan. Bertan, lekurik altuenean egotearen bertigoia sentitu genuen..."



Nordkapp-Galdhøpiggen, (Norvegia).
Koldo Aranberria, 1995:

"Unerik gogoangarrienetakoa Galdhøpiggen mendirago ginenekoa izan zen, alegia, Norvegiako eta Eskandinaviako punturik garaienera. Algaraka, aire izoztua arnastuz..."



...istorio laburretan batuta

QR kodeek Drogetenitturri.eus webgunea zabaltzen dute, eta bertan testu osoak irakurtzeko aukera dago. Haiek entzutea nahiago dutenek "Entzun" botoia sakatu beharko dute.



Pobeda Peak (Txina), 7.439 metro.
Ramón Piñeiro, 1997:

"Esan ziguten bezala, zortzimilako asko baino zailagoa da, eta guztietan hotzena. Mendiak gorrotatzeko leku ezin hobea da..."



Picu Urriellu (Espainia), 2.519 metro.
David Elejalde, 2002:

"Eskaladarako egun ederra, arroka bikaina eta tamaina horretako horma batek eragindako hasierako errespetua. Baina poliki-poliki paretari metroak jaten joan ginen..."



Aconcagua (Argentina), 6.962 metro.
Alberdi anaiak, 2008:

"Hango gidariek sarri esaten dute: hirugarren kanpalekura iristea (Berlin aterpea, 5.930 m) ez da bidearen erdia besterik. Beste erdia gailurrerako eguna da...."



Muztag Ata (Txina), 7.546 metro.
Eva García, 2014:

"Aklimatazioaren ondoren, bigarren kanpamentura iristean (6.200 m), eguraldi txarraren iragarpena zelaeta, tontorrera jotzea erabaki genuen hirugarren kanpamentuan atsedenik hartu gabe..."



50. URTEURRENEKO EGITARAUA

IRAILA

Argazki erakusketa: Artarra.
Lobiano kulturgunean
Irailaren 16tik 28ra.

Erakusketa: Tximist 1974 Everest. Txomin Uriartekin solasaldia.
Lobiano kulturgunean
Irailaren 16tik 28ra.

Hiru Txikiak trail eta martxa.
Urko, Oiz eta Egoarbitza.
Irailaren 20an, 08:00etan.

Mendi Tour. Mendia, zinea eta proiektzioak.
Lobiano kulturgunean.
Irailaren 23an, 19:00etan.

Irteera: asteburua Pirinioetan.
Panticosan.
Irailaren 26tik 28ra.

Arte baten landaketa.
Txistulariak, dantzariak eta bertsolariak.
Abeletxen.
Irailaren 30ean, 19:00etan.

Drogeteniturri aldizkarian gehigarria: Artarraik 50 urte.
Euskarazko gehigarria eta gaztelaniazko bertsioa.

BESTELAKOAK

Artarrairen buzoian plaka oroigarria.

50. urteurreneko kamiseta oroigarria.

URRIA

Irteera: Urkoko koba.
Urriaren 4an.

Solasaldia: Trail running.
Lobiano kulturgunean.
Urriaren 7an, 19:00etan.

Mendi irteera: bi ibilbide (erraza/ertaina).
Arantzazu-Zegama.
Urriaren 11n.

Umeentzako jarduerak. Inguru Abentura.
Plazan.
Urriaren 11n, arratsaldean.

Solasaldia: Mendiko medikuntza. Kepa Lizarraga eta bere esperientzia Nepalen.
Lobiano kulturgunean.
Urriaren 14an, 19:00etan.

Mugarriz mugarri.
Urriaren 18an.

Hitzaldia eta diaporama: Mamen Etxaniz.
Lobiano kulturgunean.
Urriaren 21ean, 19:00etan.

Aldibereko igoera Urkora, Oizera eta Egoarbitzara.
Urriaren 25ean, 08:00etan.

Herri bazkaria eta erromeria.
Merkatu plazan.
Urriaren 25ean, 15:00etan.

Solasaldia eta diaporama: Pou anaiak.
Lobiano kulturgunean.
Urriaren 29an, 19:00etan.

AZAROA

Familien irteera: Urkiola-Saibigain.
Azaroaren 2an.

Solasaldia: 50 urte Kilimanjarora igo zenetik.
Artarraiko beteranoak.
Lobiano kulturgunean.
Azaroaren 4an, 19:00etan.

Zine-kluba: Mendiarekin lotutako pelikularen emanaldia.
Ermua Antzokian.
Azaroaren 6an.

Eskerrik asko!
Mendian eman dugun pauso bakoitza abentura bihurtu da zuei esker.

Eskerrik asko urte hauetan guztietan gure ondoan izan zareten bazkideei eta erakundeek, ezinbestekoak izan zaretelako gure bideak eta gailurrak berezi bihurtzeko!



Autobusa antolatu dute Palestinaren aldeko manifestaziora joateko

Palestinarekin Elkartasuna plataformak manifestazio nazionala deitu du urriaren 4an Iruñean. Palestinar herraren erresistentziarekin elkartasunezko ekimen hau Antoniutti parketik abiatuko da 12:00etan, eta Iruñeko etorbide nagusiak zeharkatuko ditu. Bertara joan nahi duten ermuarrek bidaia autobusean egiteko aukera izango dute, Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak antolatuta. Debatik etorriko den autobusa 10:10ean helduko da Kaltxangoko garelakura, eta 14:00etan bueltatuko da. Txartelak aurretik eskatu beharko dira, 675 12 90 10 telefonora deituta,



eta 10 euroko prezioa izango dute. Autobusa Debatik irtingo da (9:30), eta Mendarik (9:40) eta Eibartik (10:00) pasatuko da. Antolatzaileen esanetan, manifestazioak bi helburu izango ditu: palestinaren erresistentziari babesa ematea eta Israelen konplize diren gobernu, alderdi eta enpresak presionatzea.

Ermuarrak izan ziren garaile VI. Hiru Txikiak trailean

Irailaren 20an burutu zen aurtengo Hiru Txikiak proba, eta Ermuko lasterkariak izan ziren azkarrenak 42 kilometroko trailean. Iaz bezala, Julen Olaizolak eskuratu zuen lehen postua (3:52:00), bere marka ia 5 minututan hobetuz. Nesken kategorian, aldiz, Sonia Lópezek lortu zuen garaipena, 4:34:30 denborari esker. Gazteen trailean, berriz, Laudioako Xabier Arranzek irabazi zuen (1:12:07), eta Beñat Bouzo lehen ermuarra izan zen, hirugarren postuan heldu eta gero (1:21:36). Nesken kategorian, Irati Guerra bilbotarra izan zen lehen sailkatua (1:36:05), eta atzetik heldu ziren Garazi Marquez (1:55:59) eta Ane Añel (1:59:33) ermuarrak. Eguraldiak proba zaildu zuen, egun sargoritsua izan baitzen, eta 89 lasterkari ez ziren irteeran agertu. Gainontzeko 272 kirolarietatik, 25 deskalifikatu zituzten, ea 48 erretiratu egin ziren proba bukatu baino lehen. Guztira, 199 korrikalari heldu ziren helmugara. Gazteen trailean, berriz, 33 lagunek eman zuten izena, eta horietatik zazpik ez zuten parte hartu eta bat erretiratu zen, beraz, 25ek zeharkatu zuten helmuga. Martxan ere kirolari ugarik parte hartu zuten, baina aurtan ez dira jakinarazi parte-hartzaileen sailkapenak.



Julen Olaizola eta Sonia López.
Arg.: Oscar Blanco.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señarans
Cava Oriol Rossell
arrai@arrai97.com | Pol. Gaitondo-Goiako, Parc. 7 - Pob. 1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINOS
nitida
T.943176075

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Laster zabalduko da San Martin azokan izena emateko epea

Azaroaren 8an burutuko da San Martin azokaren XXXV. edizioa, eta bertan parte hartu nahi duten ekoizleek eta artisauek izena eman ahal izango dute urriaren 1etik aurrera: Udalaren eta Euskal Birusaren bitartez hurrenez hurren. Jarraian irakur daitezke bakoitzak bete beharreko baldintzak.

Testua **DORLETA VIDAL**

Ermuko Udalak San Martin azokako ekoizleen erakusketa-lehiaketa arautzen duten oinarriak kaleratu berri ditu. Horien arabera, Bizkaiko udalerrietako ekoizleek bakarrik parte hartu ahal izango dute azokan, eta salbuespen moduan, Eibarko ekoizleak ere onartuko dira. Postuen kopurua mugatua denez, denontzako lekua egongo ez balitz, Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizlea izatea lehenetsiko da, eta parte-hartzaileak azokan izan duen antzintasuna kontuan hartuko da.

Lehiaketak hurrengo atalak izango ditu: fruta eta ortuariak, gazta, sagardoa, txakolina, ogia eta eztia. Baserritarrek bere ustiatzean ekoizten dituen produktuak bakarrik saldu ahal izango ditu, eta horrela dela ziurtatzeko antolatzaileek azokaren aurretik ustiapena bisitatzeko eskubidea dute. Horrelakoe-tan ekoizleek harrera egokia egin behar diote bisitan doan antolatzaile taldeari. Gainera, ezin izango dira saldu baimendu gabeko gaiak, eta produktu guztiek salmenta prezioa izan beharko dute.

Postuak Orbe Kardinalaren plazan zein inguruetak kaleetan kokatuko dira, eta hauek zozketa publikoaren bidez esleituiko dira Lobiano Kulturgunean, urriaren 30ean, 19:00etan egingo den ekitaldian. Gazta, sagardoa, eztia eta txakolinetako erakustokiak bi metro eta erdikoak izango dira; fruta, ogia eta ortuarietakoak bi metro eta erdikoak edota bost metrotakoak.

Epaiahahaia honako kideek osatuko dute: teknika-



riek, gaien arabera, eta herriko ordezkariak, eta sari ezberdinak banatuko dira: fruta eta ortuarien lehiaketa-erakusketa: 250 euro eta garaikurra, eta 200 euro; gazta lehiaketa: 125 euro eta garaikurra, eta 100 euro; sagardo lehiaketa: 100 euro eta garaikurra; txakolin lehiaketa: 100 euro eta garaikurra; ogi lehiaketa: 100 euro eta garaikurra; ezti lehiaketa: txilar eztia, 125 euro eta garaikurra; mila-lore eztea: 125 euro eta garaikurra; aipamen berezia: 150 euro.

Ekoizleak

Izena emateko epea: urriaren 1etik 10era.

Lekua: Ermuko Udala, Abiapuntu bulegoa. Kontentukoak 3. Ermua (Bizkaia). 08:00ak eta 15:00ak bitartean.



Artisauak

Artisau azoka nekazaritza azokaren ekintza osagarria da, eta formatu txikikoa da. Izena ematen duten artisau guztien artean, herrikoek izango dute lehentasuna. Jasotako gainontzeko eskabideen artean, antolatzaileek aukeraketa egingo dute, azokaren helburuak kontuan hartuta eta originaltasuna eta desberdintasuna baloraturuz. Aukeraturako artisauak jakinarazpena jasoko dute urriaren 25a baino lehen.

Erakustokiak zozketa publikoaren bidez esleitu dira Lobiano Kulturgunean, urriaren 30ean, 19:00etan egingo den ekitaldian.

Artisauak bere lantegian ekoizten dituen produktuak bakarrik saldu ahal izango ditu, eta izena ematerako ordua, argi eta garbi azaldu beharko du zeintzuk produktu ekarriko dituen. Antolatzaileek jarriko dituzte posturako mahaiak (2,20 metrokoak), eta mahai horiei ezin izango zaie bestelako gehigarriarik edo karparik jarri.

Publikoari zuzendutako informazio guztiak (kartelak, azalpenak, prezioak...) euskaraz egon behar du, eta produktu bakoitzaren prezioa argi eta garbi azaldu beharko da. Halaber, saltzaileak ahozko harremana euskaraz bermatuko du, azokaren helburu nagusia euskara sustatzea baita.

Artisauak

Izena emateko epea: urriaren 1etik 14ra.

Bidea: euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzita.

San Martin Batzordea lanean hasiko da

Iazko emaitza bikainari erreparatuta, Euskal Birusa Elkarte Kulturak batzordeen formula erabiliko du aurten ere San Martin azoka antolatzeko. Horren arabera, herriko hainbat norbanako talde ezberdinetan banatuko dira, azokaren inguruko atal desberdinetan beharrezkoak diren lanak egiteko: artisauak, taloak, txikurixak, komunikazioa, eta azkenik, babajana, ti-ketak eta errifak.

Batzorde hauek irekiak dira, eta interesa eta ekarpenak egiteko gogoia duten pertsona guztiak ongi etorriak izango dira. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 688 63 28 74 telefonora edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi. Lana boluntarioa da, eta bakoitzak ahal duen neurrian parte hartuko du batzorde horiek egiten dituzte bileretan eta haietan zehazten diren eginbeharrekoetan.

Iazko batzordekideek irailaren 25ean egin zuten lehen bilera eta dagoeneko antolatuta daude eta lanean hasteko prest.



2024ko San Martin azoka antolatzeko lana burutu zuten batzordekideetako batzuk.



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



www.quetzalmoda.com
Zubiabarre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065

Sallabente Auzoko Elkartea, auzoa dinamizatzeko lanean

2023an eratu zen Sallabente Auzoko Elkartea, hau da, Gipuzkoa Etorbidea osatzen duten San Lorenzo eta San Antonio auzoen alde lan egiteko helburua duen taldea. Hirigintzari eta zerbitzuei lotuta daude elkartearen aldarrikapen gehienak, eta dagoeneko hainbat ekintza jarri dituzte martxan auzotarren aisia dinamizatzeko eta elkar ezagutza sustatzeko.

Testua **DORLETA VIDAL**

Gipuzkoa Etorbidean 2.587 ermuar bizi dira: 1.480 San Antonion eta 1.107 San Lorentzoz, hau da Ermuko biztanleriaren % 16,5 (Eustat, 2024/01/01). Kopuru altua den arren, bertako hainbat bizilagunek salatzen dute auzoa "abandonatuta" dagoela, tartean Sallabente Auzoko Elkarteko kideek: "Gero eta azpiegitura gutxiago dugu, argia askotan joaten da, lorategiak ez dira zainzen... hemen ez da dirua inbertitzen".

Horrez gain, "zabortegiaren luiziak agerian utzizuen San Lorenzo auzoa baztertuta dagoela, Ermutik banatuta egongo balitz bezala —diote elkarteko zuzendaritza taldeko kideak diren Cande Ruedak eta Nieves Egiak—. Sentsazio hori areagotzen doa urteekin, auzoaren gainbehera nabarmena baita".

Horiek horrela, Sallabente Auzoko Elkartea sortu zen 2023ko urrian, bertako bospasei lagu-

nen ekimenez. Talde irekia eta apolitikoa da, eta euren helburua da auzoaren alde lan egitea, hobekuntzak proposatzea eta bizilagunen eskaerak modu kolektiboan Udalari helaraztea. Lan horiek burutzeko, Udalak berak utzitako bulego batean biltzen dira ia egunero, Miguel de Unamuno Gizarte Zentroan.

Mahai gainean duten egitekoen zerrenda luzea da, izan ere edozer gauza egiteko hirigunera joan behar dira, "Ermura", euren esanetan. "Esaterako, lehen, Miguel de Unamunon nagusientzako zentroa zegoen,

eta oso ondo funtzionatzen zuen, baina egun bate-tik bestera itxi zuten. Auzoan gero eta jende nagusi gehiago dago, eta batzuk ezin dira egunero Ermura joan karta-jokoan aritzera, adibidez. Ondorioz, bakarrik geratzen dira, baztertuta, sozializatzeko aukera gutxi-ekin", salatu dute.

Dirua eskuratzeko ere ez da gauza erraza, ez dago-



Cande Rueda, ezkerrean, eta Nieves Egi, eskuman, Sallabente auzoan.

"Erosoa izan arren, jende askok ez du erabiltzen lurpeko pasabidea beldurra ematen duelako"

"Gazteekin eta auzoko beste elkarteekin elkarlana abiatu nahi dugu, emaitza hobeak lortzeko"

eta kutxazainik, eta Udalarekin harremanetan daude banketxeei euren eskaera helarazteko. Harekin elkar-lanean ere, Ermua Sarean proiektuarekin harremanetan daude, aztertzeko zer egin daitekeen Sallabenten nahigabeko bakardadean dauden pertsona nagusiei laguntzeko.

Irisgarritasun arazoak

Taldearen lana pertsona nagusien ongizatea hobetzera bideratuta dago neurri handi batean, izan ere auzoko biztanleen batezbesteko adina gero eta altuagoa da. Esparru horretan, aipatzekoa da auzoak dituen irisgarritasun arazoak, eta elkarteak kideek salatzen dute nonahi daudela traba arkitektonikoak, eta oinezkoen pasabideak ez daudela zero kotan: "Horrek asko zailtzen du gurpil-aulki bat eramateko lana".

Ilido beretik, lurpeko pasabidea konpontzeko eskatzen dute, baina ez bakarrik irisgarritasunari begira: "Pasabidea guztiz zahartuta dago, ez da ia garbitzen, usain txarra dago, iluna da... Erosoa izan arren, jende askok ez du erabiltzen beldurra ematen duelako bertatik pasatzea, eta bada ordua obra egin eta behar bezala atontzeko", adierazi dute taldetik. Euren iritziz, hobetzekoak dira ere kaleen garbitasuna orokorrean, lorategien zaintza, behin eta berriz gertatzen diren ura eta argi mozketak eta hutsik dauden lonjen itxura eta erabilera, besteak beste.



Ekintza kulturalak eta aisialdikoak

Taldeak lanean dihardu dinamizazioaren esparruan baita ere, eta Udalarai eskatzen diote, noizbehinka, ikastaroak antolatzea auzoan, denak hirigunean egin beharrean. Bitartean, ikastaro propioak jarri dituzte martxan: meditazioa eta Berbalaguneko bi talde, hain zuzen ere; eta laster abiatuko dira ere irakurketa kluba, kakorratz-lan, joskintza eta eskulanean ikastaroak. Ekintza hauei esker sustatu nahi da jendea etxetik irtetea eta auzoko zein auzotik kanpoko beste pertsonekin harremana izatea. Ekintza hauek doakoak izango dira, eta parte-hartzearen arabera zehaztuko da haien iraupena. Gainera, urrian merkatu txikia egingo da bigarren urtez, elkartearen autofinantzaketara bultzatzeko.

Eginbeharrekoak asko dira, baina ez dira horrenbeste laguntzeko prest daudenak: taldeak hogeiki kide inguru ditu, 40 eta 60 urte bitartekoak gehienak. "Gazteak ez dira asko inplikatzeko, eta haien ekarpenak garrantzitsuak dira guretzat", kexu dira Rueda eta Egia, eta haiek gogotsu jasoko lituzketela adierazi dute. Talde-eratu nahi direnek aveinalsanlorenzo@gmail.com helbidera idatzi dezakete, edo elkartearen bulegora joan edozein arratsaldetan. Era berean, zuzendaritzako kideek adierazi dute auzoko beste elkarteekin elkarlana abiatu nahiko luketela, guztien indarrak batuta emaitza hobeak lortzeko zituztelakoan baitaude.



Egunero zabalik
08:30etik aurrera



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzailerik bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

“Heptatloian urrezko domina irabazi dut, eta nire unibertsitatea txapeldunorde izan da”

Ane Garrido · Heptatleta



Hamabi urterekin ezagutu zuen atletismoa Ane Garridok (Ermua, 2000), eta duela gutxi, Peruko unibertsitateen arteko heptatloi txapelketan parte hartu du, bertan bizi baita azken urtean. Txapelketa horretan urrezko domina eskuratu du, korrika, jauzi eta jaurtiketa proba ezberdinak burutu ostean, eta hurrengo erronka Nagusien Kopa Nazionala txapelketan parte hartzea izango da, urriaren 10etik 12ra.

Testua **DORLETA VIDAL**

Irailaren 12tik 14ra, FEDUPek (Peruko Unibertsitate Kirol Federazioa) antolatutako unibertsitateen arteko txapelketan parte hartu zenuen, heptatloian. Zer dela-eta bururatu zitzaizun bertan izena ematea?

Nire unibertsitatearen taldeko kide izan nahi nuen, izan ere, FEDUP ez da soilik marka pertsonalak lortzeko plaza bat, baizik eta beste atleta unibertsitarioekin lehiatuz hazteko, esperientzia berriak bizitzeko eta taldearen indarrarekin bat egiteko aukera ere. Gainera, adinagatik, nire azken aukera zen horrelako talde baten parte izateko, eta ez nuen galdu nahi nire unibertsitatea ordezkatzeko aukera, gure unibertsitatean kirolariak oso preziatuak direlako.

Zeintzuk proba osatzen dute heptatloi bat?

Heptatloia emakumezkoek egiten duten zazpi probako diziplina konbinatua da (gizonezkoen aldaera hamar probakoa da: dekatloia). Probak bi egunetan banatzen dira: lehenengo egunean: 100 metro hesiak, altuera jauzia, bala (pisu) jaurtiketa eta 200 metroko lasterketa; bigarren egunean: luzera jauzia, xabalina jaurtiketa eta 800 metroko lasterketa. Nire kasuan, lehen fasean heptatloiaz gain, disko eta xabalina jaurtiketa proba indibidualetan parte hartu nuen. Bigarren fasean, berriz, 4x400 metroko erreleboaren taldearen parte izan nintzen baita ere.

Horietako zein diziplinatan aritzen zara gusturago, eta zeinetan kostata?



Orokorrean, gustura sentitzen naiz proba guztietan, baina badira oraindik landu beharreko alderdiak. Gehien kostatzen zaizkidanak hesiak eta altuera jauzia dira, lan falta eta urduritasuna kontratan jartzen zaizkidalako. Horregatik, erronka berezia dira niretzat, eta hobetzeko aukera handiena hor dagoela uste dut. **Proba batean ez badituzu lortzen espero dituzun emaitzak, erraza egiten zaizu ahaztea eta hurrengoari gogotsu heltzea?**

Normalean, denbora hartzen dut arnasteko, eta burua hotz izaten saiatzen naiz, txapelketak aurrera jarrai dezan. Ez dut nahi emozio negatiboek hurrengo pro-

ban eraginik izatea. Hala ere, astea pasatu ondoren bai hartzen dut tarte bat introspektzioarako, gertatutakoa aztertzeke eta hurrengoan hobeto prestatzeko. **Eta zer nolako markak lortu zenituen aipatutako txapelketan?**

Heptatloian, proba guztietako emaitzen batura egiten da sailkapena osatzeko. Nire kasuan, urrezko domina lortu dut, 3.585 punturekin. Horrez gain, zilarrezko domina eskuratu dugu 4x400 metroko erreleboan, 4:12.46 markarekin. Bigarren fase horretan, nire unibertsitatea txapeldunorde izan da, eta hori ere lorpen handia da, banakako zein taldeko lanaren emaitza islatzen duelako.

Txapelketak iraun zuen egunetan, etxera joan zinen edo zentzoren batean egon zinen taldekideekin elkarbizitzen?

Lehiaketa bukatutakoan, etxera itzultzen nintzen bi-kotekidearekin eta txakurrarekin lasai egotera. Une horiek funtsezkoak izan ziren niretzat, tentsioa askatzeko, ondo elikatzeko eta hidrartzeko, eta atsedean hartzeko, hurrengo jardunaldirako energia berriz eskuratzeko. Horrela, oreka fisiko eta emozionala mantentzea errazagoa izan zitzaidan. Hala ere, pista-tik irten aurretik, aukera izan nuen fisioekin terapia saioak egiteko: deskarga masajeak eta baita izotz-bainuak ere. Horrek ikaragarri lagundu zidan sasoi berreskuratzen eta hurrengo egunerako prest egoten.

Zein izan zen txapelketako momenturik onena?

Taldekideekin partekatutako denbora, bai animazio eta laguntzan, bai giro onean egoteagatik. Halaber, oso berezia egin zitzaidan proben arteko atsedenetan gainerako lehiakideekin egon eta esperientziak partekatzeko aukera izatea, elkarren arteko errespetua eta konplizitatea sortu zirelako.

Zure kabuz entrenatzen duzu?

"Gero eta maila handiagoa dago atletismoan Perun, eta horrek asko motibatzen nau"



Klub bateko kidea banaiz ere, prestakuntza nagusia unibertsitateko entrenatzaileen gidaritzapean egiten dut. Hala ere, unibertsitateko instalazioak zein VIDENA kirol instalazioetako pista erabiltzeko aukera dut, eta bi esparru horiek uztartzeak entrenamendu osoa eta kalitatezkoa egitea ahalbidetzen dit.

Maila oso handia dago atletismoan Perun?

Gero eta handiagoa. Azken urteotan atleta askok nazioartean lehiatzeko aukerak izan dituzte, eta FEDUPen ere nabari da aldaketa hori: unibertsitate askok atleta indartsuak dituzte eta probak oso lehiatuak izaten dira. Horrek asko motibatzen nau, ingurune horretan entrenatzeak eta lehiatzeak hazkunde pertsonala zein kirol mailakoa bultzatzen duelako.

Eta kirola alde batera utzita, nola moldatzen zara Perun?

Arkitektura ikasten ari naiz Minerva metodologia-rekin, ikasketa dinamiko eta parte-hartzaileagoa eskaintzen duen planteamendu pedagogiko berritzaile baten bidez. Horrez gain, Peruko kultura eta bizimodu sakonagoan ezagutzeko aukera izaten ari naiz, eta nire etorkizuneko ibilbide profesionala osatzeko. Oso pozik eta eskertuta nago hemen bizitzen ari naizen guztiarekin: esperientzia hau nire bizitzako etapa aberasgarrietakoa bihurtzen ari da.

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Ferretería

ANBOTO

Burdindegi


Orain KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Plazako Marian dendia



Urte batzutara drogeria kontuak nagusitu ziran eta papeleriako gauzak be leku zabala hartuko zeber bertan: usain ederreko koloniak eta atzamarroskol eta ezpanetako pintxura koloretsuak, orturako botiken pareko apalian topau zeinkiazan; erreixa biko edo kaligrafia eitzeko kuadernuak, idazluma dotoreen onduan lasai askuan be egoten ziran. Koloniak, anbientadorrak, orixua eta benzola sueltora saltzen zan; menbrillua latetan zetorren; azukria, uruna eta parafina momentuan pisatzen ziran, frutia libra edo libra erdika eskatzen zan, hau da, 500 edo 250 gramoka, kafia kuarteroi erdika, 65 gramoka... “Juan Plazako Mariana, hantxe topauko dozu-eta!”, herrixan ondo zabalduta zeuan esakeria zan, Marianian danetik zekela erakusten zebana. Familiak 1998ko uztaillian itxi zeban, 50 urte bete aurretuan, eta gaur egunian bertan dauan jostundegixan aurretik telefonía- eta erropa-denda bana egon dira.

Frontoian horma ostian kokatuta, aurretik Salaberrianeko estankua eta gero Jesusa Alberdin jateko-denda izandako denda luzekin haretaz 1948ko iraillian kargotu ziran Maria Larruskain eta haren alaba Puri eta Rosi Solozabal. Ultramarinos modura zabaldu zeber eta danetik erosi zeinkian bertan: jateko kontuak, fruta freskua, garbitxasuneko produktuak... Lejiak, orixua eta platanuak gertu zekezen abarketa zurixak, orturako hazixak zein bakailau gazituak.





JABI VIDAL

El congreso de ratones (Saguen biltzarra)

Ikerrentzat iraila astelehen luze bat da. Iraila da kotxe barruko astelehen goizeko aharrausia, liburuz beteriko eskolako motxila pisutsu bat, egin gabeko ohea, asteburuko oroitzapena ezpainetan, hozkailu hutsa, zereginen zerrenda amaigabeak; iraila medikuarekin hitzordua eskatzeko duzula pentsatzea da, eta gaur ere biharko uztea.

Ikerrentzat iraila *El congreso de ratones* abestia da (*Señores diputados, la situación es extremadamente grave, debemos hacer un consenso para meterlo dentro de un marco, qué monada!...*), eta politikarien jarrera genozidio amaigabearen aurrean irudikatzen du. Irailean, zorionez, Vueltaiko Bilboko etapan herritarrak ausartu dira gobernu ustez demokratikoek egiten ez dutena egitera, nahiz eta Vocentoko egunkaririk salduenak esan “amaierarik tristeena” izan zela. Gizatasuna eta duintasuna galdutzat ematen ez ditugunon pozerako.

Baina nahiz eta iraila izan, gaur Iker pozik dago, sarrera batzuk tokatu zaizkio VIP palkoan Txapeldunen Ligako futbol partidu bat ikusteko. Nahiz eta bere talderik gogokoena ez izan, VIP palkora joango delako pozik dago.

Ainhoak, baina, ez du ulertzen zergatik dagoen hain pozik, zergatik nahiago duen futbol partidu hori VIP jendearekin ikustea, eta ez beraien lagunekin beti elkartzen diren tabernan garagardo bat hartzen duten bitartean. Ainhoa saiatzen da azaltzen zeintzuk diren benetan inportanteak bizitzan, ze guztiok behar dugu inportante sentitu, eta ez VIP palkora joateko Txapeldunen Ligako futbol partidu bat ikusteko, baizik eta norbaitentzako pertsona garrantzitsua garela sentitu nahi dugulako.

Gurekin egoteagatik edo gu ezagutzeagatik norbaiten bizitza hobe dela sentitzea benetan pozgarria delako. Horrela, Ainhoa garrantzitsu sentitzen da lagun batek deitzen dionean mendira joateko, mendian gozatu ta gero beti daudelako garagardo batzuk elkarrekin ospatzeko; garrantzitsu sentitzen da lagun bati mezu bat bidaltzean aurretik dakienean erantzungo diola, nahiz eta oso lanpetuta egon, saiatuko dela berari kasu egiten; garrantzitsu sentitzen da lagun arteko bazkarietara gonbidatzen dutenean; garrantzitsu sentitzen da lagun batek besterik gabe deitzen dionean, arrazoi zehatzik gabe, soilik zelan dagoen jakiteko; garrantzitsu sentitzen da norbaitek bere umorearekin bat egiten duenean eta elkarrekin barrez lehertzen direnean; garrantzitsu sentitzen da edozein proposamen ero botatzean lagunak hor daudelako prest; garrantzitsu sentitzen da norbaitek liburu bat erosten dionean liburu-dendan ikustean berataz gogoratu delako, berari halakoak gustatzen zaizkiola badakielako...

Denok daukagu guretzat inportantea den jendea, baina batzuetan ahaztu egiten zaigu haiei garrantzitsuak direla sentiaraztea. Beraz, ondo dago noizbehinka pertsona horiek zeintzuk diren pentsatzeko ahalegina egitea eta erabakitzea haiei keinu bat, euren egoeraren berri izateko dei bat, mezu bat, opari bat, kontsulta garrantzitsu bat... egitea, senti dezaten zuretzat garrantzitsuak direla. Senti dezaten “jende garrantzitsua” izateko ez dela beharrezkoa VIP palkoan agertzea, aski dela norbaitek zu miresteko handitasuna erakustea.

Iker pentsakor gelditu da sarrerei begira eta handik gutxira Ainhoari esan dio: arrazoi duzu, pentsatzen egon naiz eta sarrerak aldatu ditut, orain Evaristoren kontzertua ikustera joango gara!!

ALMU MAESO

Ermuan jaioa duela 28 urte. Bera baino hiru urte nagusiagoa den ahizpa dauka, eta bera baino 12 urte gazteagoa den neba. Arte Ederretan lizentziatua, pintura eta grabatuak dira bere gustuko esparruak, eta aisialdian, estimatzen du paseoak ematea, landareak haztea eta bere buruari denbora eskaintzea.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?
Oporraldiak ditut gogoan batez ere... Amamaren etxean igarotzen nuen uda osoa, Albaceteko herri batean, eta bertan txabolak egiten genituen, igerilekura joan, beroa, eguzkia... Oso dibertigarria zen. Ermuari dagokionez, Ikastolako kontuak gogoratzen ditut, neba txikia jaio zenean...

Eta gaztaroa?

Elgoibarrera joateko garaia tokatu zitzaidan, gero Eibar, Ermua... Batxilergoa Eibarko Unian egin nuen eta urte politak izan ziren, jende asko ezagutu nuen eta beste giro bat ere bai.

Zer izan nahi zenuen handitan?

Arkitektoa, zientzien adarretik joan behar zela jakin nuen arte!

Zergatik aukeratu zenituen Arte Ederrak?

Txikitatik margotu izan dut, eta nahiko argi neukan bidea hori zela. Hala ere, Batxilergoan zalantzak izan nituen, lan irteerei erreparatuta, inork ez ninduelako animatzen. Baina tira, pozik nago hartutako erabakiarekin.

Artearen munduan, zein da zure gustuko esparrua?

Pintura eta grabatuan espezializatu nintzen, baina pinturan aritzen naiz batez ere, Ermuan estudio txiki bat dudalako. Grabatua egiteko, aldiz, Bilbora joan behar naiz, erreminta bereziak behar direlako.

Badago probatu nahiko zenukeen diziplinarik?

Bai, moda, esaterako: asko gustatzen zaizkit brodatuak eta pinturan aplikatu nahiko nituzke, modu abstraktuan. Esploratzeko daukadan esparrua da.

Zeintzuk artista miresten dituzu?

Philip Guston eta Hilma Af Klint. Lehenengoak erakutsi dit ez dela derrigorrezkoa beti norabide berean joatea; bigarrenak, aldiz, oso ondo lantzen zuen arte abstraktua, baina hil arte bere lana ez zen aintzat hartu.

Museoetara joateko ohitura duzu?

Bai, ia urtero Madrilerara noa, Reina Sofiara, Thyssen-era eta Prado Museora. Horrez gain galeria ezberdinetara joaten naiz.

Zein museotan erakutsi nahiko zenituzke zure lanak?



Berdin zait, areto txiki batekin pozik.

Non egiten duzu lan?

Lanbide Heziketako irakasle hasi nintzen aurreko astean.

Aisialdian...

Margotzea da nire zaletasun handiena, baita ere paseatzea, landareak eta zuhaitzak haztea, etxean pelikulak ikustea, irakurtzea...

Kirola praktikatzen duzu?

Boxeoa praktikatzen nuen eta gimnasia joaten nintzen, eta ohitura horiek berreskuratze bidean nago.

Kirolen bat jarraitzen duzu?

Errotabarriko partidak ikusten ditut, lagun batzuk bertan jokatzen dutelako.

Bidaia zure gustatzen zaizu?

Bai, baina egia esan ez ditut bidaia asko egin. Mila lekutara joango nintzateke: leku *paradisiako*etara (Costa Rica, Kuba, Mexiko...); Suediara; eta azkenik museo-

turismoa egingo nuke Europatik, esaterako, Amsterdameko Rembrandten eta Van Goghen museotara.

Musika gustatzen zaizu?

Bai, rocka, rapa eta reggaea gustatzen zaizkit batez ere. Protesta egiten duten taldeak gustatzen zaizkit, baita euskal musika ere: Glaukoma, Vendetta, Esne beltza, Skalariak...

Irakurketa...

Pila bat gustatzen zait, baina azkenaldian denbora gutxi daukat: komikiak gustatzen zaizkit irakurterrazak direlako, baina gehien estimatzen dudana arteari lotutako saiakerak dira, autobiografiak, artisten egunerokoak...

Telebista...

Etxean ez daukat antenarik, plataformetan ikusten dut den-dena, batez ere telesailak eta pelikulak. Telebista arruntetik *El Conquis* bakarrik ikusten dut.

Jatun ona zara?

Orain bai, eta asko gustatzen zaizkit hanburgesak, di-listak eta babarrunak, baina ez zait gustatzen kozinatzea, behar beharrezkoa denean bakarrik egiten dut.

Bertute eta akats bana?

Beti saiatzen naiz autokritika egiten, eta ahalegintzen naiz gustatzen ez zaidana besteei ez egiten. Akatsari dagokionez... oso desordenatua naiz.

Puntuala zara?

"Distopien frikia naiz, eta jakin nahiko nuke noraino helduko den teknologia"

Bai, oso, eta amorrua ematen dit batzuk beti berandu heltzeak.

Eguneko zure momentua?

Gauean, lan guztiak bukatuta, gustura egoten naiz sofan telesail bat ikusten edo irakurtzen.

Erraz haserretzen zara?

Ez, pazientzia daukat.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Nire nebak, kar-kar! Ez, benetan ez zaidana gustatzen da jendeak behin eta berriro esatea gizartearen arabera zer gauza egin beharko nituzkeen nire adinarekin.

Eta barrea eragin?

Bakarriketazalea naiz. Bihar Henar Álvarez ikusteko sarrerak hartuko ditut.

Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Ez, nahi izan dudana egin dut eta ikasi dut, lan handia egin eta gero.

Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Eibarren egin nuen erakusketa aurkeztu nuenean.

Lagunekin zaudenean, nahiago duzu entzun edo hitz egin?

Orokorrean, hitz egitea gustatzen zait.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Erdipurdi, ez naiz teknologiazalea, baina azkenaldian adimen artifizialak jakin-mina sortu dit.

Etorkizunera edo iraganera bidaiautuko zenuke?

Etorkizunera, hemendik 200 urtera. Distopien frikia naiz, eta jakin nahiko nuke noraino helduko den teknologia.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Palestinako sarraskia eta gerrak orokorrean bukatu direla, bakearen bidean gaudela.

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti

PADI Programa Ayuda Dental Infantil
943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo zeharbidetza 5 - ERMUA

SAGARDUI
poltsak

Zubiurre 20 - ERMUA - 943 170305

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, beheak
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

LA FORJA KAFETEGIA

1960

E R M U A

Doroteo Gorritxategi Lekerikabeas-
koa eta Maria Atxa Ormaetxea be-
raien bilobetako batzuekin, Rantxo
izeneko etxean. Aitxitxa-amamaren
ondoan Mertxe eta Jesus Mari Gorri-
txategi Gorosabel, kotxetxo ederrean
Juanjo eta Txebis anaia bikiak eta
alboan lauron lehengusu Luis Mari
Gorritxategi Aranberria.



1981

M A L L A B I A



Duela 44 urte ateratako argazki hau
Zengotitan aterata dago, abuztua-
ren 30ean. Bertako jaiak ospatzen
agertzen dira dantzan: Berrizko
Karmelo, Agustin Solozabal, Claudio
Pagate eta Hilario Solozabal.
Ikusleen artean, aldiz: Itziar Sala-
berria, Rikardo Txurruka, Rikardo
Aranburu, Felipe Zelaieta, Juan
Aranburu, Eusebio Arregi, Feliciano
Txurruka, Antonio Gerenabarrena,
Marina Telleria...

IRAGARKI LABURRAK

SALEROSKETAK

Baserría erosiko nuke
Ermuan edo inguruan
688 642 761 (Asier)

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar
da Ermuko hortz klinika
baterako, astean jardun
bat edo birako. Bidali CVA
hortzklínika.4@gmail.com

Higienista/auxiliarra
behar da haurdunaldiko
baja baten ordezkapena
egiteko Ermuko hortz klinika
batean. Uztaitetik abendura,
lanaldi osorako. Bidali CVA
hortzklínika.4@gmail.com

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako
matematikak, euskara eta
beste ikasgaietako klaseak
ematen ditut arratsaldean.
C1 ingelesa eta euskara.
688739358


Neska euskalduna
eskaintzen da haurrak
zaintzeko. Esperientzia eta
magisteritza ikasketekin.
648625209.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Urriaren 24a.**




Abuztuaren 23an
Zorionak **Carla!** 4 urte
sorgintxo!! Segi hain
alaia izaten. Muxu pila
amatxo eta aitatxoren
partez. Asko maite
zaitugu!!




Irailaren 25ean
Zorionak **Ainere** zure
12. urtebetetzean. Segi
beti bezain alai eta
jator. Ondo pasa zure
egunean. Patxo bat
familiarren partez.



Irailaren 17an
Zorionak gure ber-
tsolariari! Aurten ho-
geita **Irune!** Muxu eta
Facundo pakete bat
kuadrillaren partez.
Oso ondo pasa!



Irailaren 21ean
Zorionak **Lukene!** 23
urtetxo! Irailean jaio
behar agendak eta
liburuak hainbeste
gustatzen zaizkion
gure laguna. Besarka-
da potolo bat kuadrilla
osoaren partez!



Irailaren 25ean
Zorionak **Ane!** 23
betetzen ditu gure
kuadrillako eibarta-
rrak! Jejeje ;) Gozatu
zure eguna eta muxu
handi bat kuadrillaren
partez. Asko maite
zaitugu!



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00

albokamusikaeskola@hotmail.com



Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDURAK

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



ileapaindegia

Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336

ZINEA

Hilaren 4tik 6ra:
"El cautivo" +
"Un like de Bob Trevino"
Hilaren 11tik 13ra:
"Mi amiga Eva" +
"Eddington"
Hilaren 18tik 20ra:
"Un fantasma en la batalla"
+ "Talento"
Hilaren 25etik 27ra:
"Maspalomas"
+ Honey Don't!"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2:
"Mi querida ladrona"
Hilak 9:
"Weapons"
Hilak 16:
"On falling"
Hilak 23:
"La primera escuela"
Hilak 30:
"Adorable"
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5:
"Elio"
Hilak 12:
"Los tipos malos 2"
Hilak 19:
"Los Futbolísimos 2"
Hilak 26:
"Sari Nagusia zitzu bizian"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 3:
Kontzertua: Antoñito Molina.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €
Hilak 4:
Blues kontzertua: El Twan-
guero. 20:00etan. Lobiano
Kulturgunean. Sarrera: 10 €
Hilak 24:
Kontzertua: Depol. 20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €

ANTZERKIA

Hilak 10:
"Artea", Txalo Produkzioen
eskutik (euskaraz).
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €
Hilak 17:
"Una madre de película",
Toni Acostarekin. 20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €

UMEENTZAKO
EKITALDIAK

Hilak 4:
Ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean. Udal liburutegian.
Hilak 11:
Haurrentzako ekitaldiak (Ar-
tarrai taldearen 50. urteu-
rrena). 16.00etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren plazan.
Hilak 18:
Ikuskizuna: "Bisonte-Masto-
donte", Ene Kantak taldearen
eskutik (euskaraz) 20:30ean.
Ermua Antzokian. Sarrera: 6 €
Hilak 25:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
Udal liburutegian.

ERAKUSKETA

Hilaren 13tik 26ra:
Mikologiari buruzko argazki
lehiakatera aurkeztutako la-
nak. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 5era arte:
Gaztela eta Leoneko Zen-
troaren kultur astea: hain-
bat ekitaldi. Orbe Kardina-
laren plazan eta Patakonia
zeharbidean.
Hilaren 13tik 19ra:
Andaluziako Zentroaren kul-
tur astea: hainbat ekitaldi.
San Pelayo eta Orbe Kardi-
nalaren plazan, eta Andalu-

ziako zentroan.
Hilaren 20tik 26ra:
Nagusien Nazioarteko Egu-
naren jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.
Hilaren 23tik 26ra:
Mikologiari buruzko jardun-
aldiak: hainbat ekitaldi. Lo-
biano Kulturgunean eta Orbe
Kardinalaren plazan.
Hilak 25:
Herri bazkaria eta errome-
ria (Artarrai taldearen 50.
urteurrena). 15:00etan. Mer-
katu plazan.
Hilak 31:
Gau beltza: Haurrentzako
disco festa (17:30ean) eta
Kluedo (21:30ean).
Hilak 31:
Bertso jaialdia: Maialen Lu-
janbio, Iruñe Basagoiti, Aitor
Bizkarra, Unai Iturriaga, Alaia
Martin eta Andoni Egaña.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA


Desde 1971
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
ZORU ERRADIATZAILEA
AEROTERMIA

Erakusketa 943 17 15 56
Tallerra: 635 998 881
fontanerivalle@gmail.com
Golenkale z/g (15 zkiaren parean)
ERMUA

PERTSIANAK


ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zeamreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ITURGINTZA


24 orduko zerbitzua
ITURGINTZA
KONPONKETAK
GREMIO GUZTIAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

ERROTULAZIOA


Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ITURGINTZA

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA


PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26 · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA


ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak

- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Euskara eroso ikasi eta bizi

Aprende y vive el euskera
cómodamente

EUSKARA - IKASTAROAK

Kaltxango AEK euskaltegia

2025/2026

MATRIKULA ZABALIK: AZKEN EGUNAK

Maila guztiak · Todos los niveles:
A1, A2, B1, B2, C1, C2

Ordutegi malgua · Horario flexible

BERBALAGUN

% 100era arteko dirulaguntzak · Subvenciones de hasta 100 %

Zearkale 16, behea

607 623 961 · 688 746 480 · kaltxango@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZAK

ERMUKO ETA MALLABIKO
UDALEK

A1, A2 eta C1 (16-18 urte), laguntza bereziak



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Online



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones



Normalizazio-planak
Planes de normalización



Barnetegiak



Mintzapraktika



aizu! aldizkaria

- HABEK homologatutako euskaltegiak
Euskaltegis homologados por HABE
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Cursos de preparación de exámenes oficiales

HADE k diruz lagundua

